

Eusko Pizkundearen aita

EUSKALTZALE AMORRATua eta antolatzaile aparta, ekarpen garrantzitsua egin zion euskalgintzari eta aberrigintzari Jose Ariztimuño Aitzolek. Izan ere, hizkuntza, kultura eta herrigintza borroka berean bildu zituen. Era berean, euskal kulturaren berpizkundean paper garrantzitsua bete zuen apaiz gipuzkoarrak.

Tolosan jaio zen Jose Ariztimuño Aitzol, 1896. urtean. 1922. urtean apaiz egin zen, eta berehala ekin zion lanari, Gasteizko elizbarrutiko misio idazkari gisa. Jardun horretan ari zela, artikulatu ugari idatzi zituen *Gure Misiolaria* aldizkarian. Espainiako Elizaren Misio Batasuneko idazkari izan zen, eta Bartzelonan jarri zen bizitzen. Urte horietan pulpitoz pulpito ibili zen sermoiak ematen, atsedetik hartu gabe. Eta horrek gaixotu zuen. Hala, Bartzelona utzi eta Gipuzkoara etorri zen atzera, Donostiara.



Literaturaren garrantzia herrigintzan

Behin Donostian, Euskal Herriaren aldeko jardunean aritu zen buru-belarri. 1930. urtean Euskaltzaleak elkarte jaio berriaren zuzendaritza hartu zuen bere gain. Garai berean sortu zuten Euzko Pizkunda, eta bera izan zen elkarte eta mugimendu horren burua.

Aitzol oso euskaltzalea zen. Hala ere, Espainiako Estatuarekin harremanak edukitzearen alde zegoen, eskoletan elebitasuna bultzatu eta euskara ofizial bihurtzeko. Horrekin batera, euskal kultura eta folkloreak alde jardun zuen. Eta azken esparru horretan egin zuen Aitzolek lanik oparoena; kulturak herrigintzan

duen garrantziaz ohartu eta hura hobetzeko lan oparoa egin baitzuen.

Hasiera batean ez zegoen euskal kulturaren berrikuntza larregi egitearen alde; garai bateko lan egiteko era gorde behar zela zeritzon. Hala ere, berehala jabetu zen ideia hori okerra zela, 1934. urteko euskal literaturaren balantzea egitean Lizardi eta Orixeren lanak goraiatu behar izan baitzituen: *Umezurtz olerkiak* eta *Barne-muinetan* lanak, alegia. Hutsak ere aurkitzen zizkien, ordea: «Ezin da ukatu lan horien balio literarioa, baina ez dute euskara indartu eta bultzatzeko balio. Izan ere, funtsezkoa falta zaie: freskotasuna, euskara arin eta ulerterreza alegia», esan zuen Aitzolek aipatu bi autoreen lan berriaz.

Apaiza politika kontuetan

1931. urtea gorabehera handiko urtea izan zen. Espainiako II. Errepublikaren garaian, ordu arteko egoera politiko, sozial eta erlijiosoa kolokan zegoen. Hala, garaiko

ideia anarkiko, komunistak eta sozialisten aurka egiten hasi zen Aitzol. Zeregin horretan Larrañaga eta Onaindia apaizak izan zituen bidelagun. Euzko Alderdi Jeltzalearekin harreman estua zuten apaiz horiek, eta euskal nazionalismoaren oinarri ideologiak finkatzen eta zabaltzen jardun zuten.

1935. urtean *La democracia en Euskadi* liburua argitaratu zuen. Lan horretan foru instituzioek araututako demokrazia aldeztu zuen, demokrazia familiatik eta udalerritik abiatuta eraiki behar zela uste baitzuen; behetik gora eraiki behar zela alegia.

Gerra Zibilaren erruz, bere bi liburu argitaratu gabe gelditu ziren: bata euskal instituzioei buruzkoa zen; bestea, berriaz, herrigintzan literaturak duen garrantziaren gainekoa: *La poesía popular en el renacimiento de los pueblos*. Bestalde, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoari buruzko ikerketa

garrantzitsuak egiteko parada izan zuen, Iparraldera aldegin baitzuen 1936an, jazarpen militarrengatik.

Berehala jabetu zen gerra haren larritasunaz, eta militarrekin akordio batera heltzeko deia egin zuen. Horren erakusgarri da Pio Montoia apaiz gipuzkoarrari bidali zion eskutitza. Karlista eta nazionalisten artean negoziatzetik balego horren berri emateko eskatzen zion: «Zuk eragin dezakezu Ziaurritzengan -garai hartako Euzkadi Buru Batzarreko lehen-dakaria eta Pio Montoiaren senitartekoa-. Beraz, bizkortasunez joka dezan saiatu zaitetz, beldur bainaiz gure mendigoizaleen patuaz».

EAJ alderdiak ez zuen onartu proposamena; aitzitik, eraso haren aurrean hasieran hartutako erabakia-ekin jarraitu behar zela uste zuen. Baina horrek ez zuen atzera bota Aitzolen asmoa. Sarako alkate Lerenboure eta Teodoro Errandorena lagun hartuta, Etxalartik igaro zuen muga, militarrekin hitz egiteko. Militarrek, nor zen jakin zutenean, atxilotzen saiatu ziren, baina ez zuten egin, Aitzolek muga igarotzea erdietsi baitzuen. Bigarren aldian ez zuen zorte bera izan. 1936. urteko urriaren 15ean *Galerna* itsasontzia hartu eta Bilbora joaten saiatu zen. Baina Pasaian itsasontzia gelditu eta hango bidaiari guztiak atxilotu egin zituzten. Donostiako Ondarretako kartzel-

1896 ♦ Tolosan jaio zen, Gipuzkoan.

1922 ♦ Apaiz egin zen.

1929 ♦ Espainiako Elizaren Misio Batasuneko idazkari izendatu zuten.

1930 ♦ *Euskaltzaleak* elkartearen zuzendaritza hartu zuen. *Euzko Pizkunda* mugimenduaren sortzaile eta gidari izan zen.

♦ *Olerki eguna* antolatu zuen, euskal olergigintza bultzatzeko asmoz.

1931 ♦ *El Día* egunkaria sortu zuen. Kazeta hori euskal nazionalismoaren alde joan zedin lagundu zuen Aitzolek.

♦ Urte hartan bertan, EAJri atxikirik, euskal nazionalismoaren ideologia zabaltzeari ekin zion.

1933 ♦ *Yakintza* euskal aldizkaria sortu zuen.

1935 ♦ *La democracia en Euzkadi* lana argitaratu zuen. Demokrazia familia eta udalerrietatik abiatuta eraiki behar zela zioen.

1936 ♦ Jazarpen militarren ondorioz, Iparraldera aldegin zuen. EAJren jarraitzaileekin muzin eginez, militarrekin negoziatzen saiatu zen.

♦ Urriaren 15ean *Galerna* itsasontzia hartu zuen, Bilbora joateko asmoz. Pasaian kaian atxilotu zuten eta Donostiako kartzelan giltzapetu.

♦ Urriaren 17an hil zuten; fusilatu egin zuten.

lan giltzapetu zituzten guztiak. Donostiako egunkariak honela zioten atxilotetari buruz: «Atxilotuen artean Aitzol apaiz xelebre hori dago, nazionalismo separatistako gidaria (...) Apaizaren zeregina zikindu egiten du. Espainol txarra, euskaldun txarra eta Jainkoaren ministro okerragoa da bera». Bortizki torturatu ondoren, urriaren 17an Hernanin fusilatu egin zuten Aitzol.

• Ainhoa Oiarzabal •



Aitzol, Antonio Labaien eta Jesus Elsoegi, Iparraldean.